

ODEI, S.A.

**Jarduera:**

Alor juridikoko produktuak, konponbideak eta zerbitzuak:  
Informazioaren prozesu eta teknologiei, sistemei eta informazio-prozesuei lotutako aholkularitza-zerbitzua (administrazioa, industria, zerbitzuak). Ezagutzaren kudeaketa, dokumentu- eta eduki-kudeaketa, artxiboaren antolakuntza eta kudeaketa, liburutegi-kudeaketa. Informazioaren tratamendu digitala.

[www.odei.es](http://www.odei.es)

**Helbidea:**

Berpizkundearen plaza 9, 4. solairua, 20. bulegoa  
GASTEIZ (ARABA)  
tel.: 945.22.28.50  
Faxa: 945.24.05.48

**Harremanetarako:**

Amaia Santamaría Martínez de la Pera  
[amaias@odei.es](mailto:amaias@odei.es)

**INFORMAZIO-SISTEMAK.** Espediente judizialen kudeaketa

**Data:**

2009-2011

**Bezeroa:**

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGENTZIA - Aholkularitza Juridikoko Arloa

**Proiektua:**

Espedienteak Kudeatzeko Sistema

**Deskribapena:**

Datuak Babesteko Euskal Agentziak espedienteak kudeatzeko konponbide bat behar zuen, J2EE ingurune teknologiko batean neurrira egindako garapen baten bidez, helburu nagusi hauekin:

- Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Aholkularitza Juridikoko gaiei buruzko informazio guztiaren bilketa, kudeaketa eta ustiaketa eraginkorra.
- Administrazio-prozeduren izapideak digitalizatzea, Eusko Jaurlaritzako Oinarrizko Izapidetze Ereduaren (OIE) irizpideei jarraikiz.
- DBEako informazio-sistemekin eta tresna ofimatikoekin uztartzea espedienteak kudeatzeko sistema.
- Eskarien aurkezpen telematikoa egiteko eta webgunea kontsultatzeko aukera ematea herritarrei.

## INFORMAZIO-SISTEMAK. Web-zerbitzuen ataria

**Data:**

2001-2012

**Bezeroa:**

EUSKO JAURLARITZA - EJI

**Proiektua:**

Ezagutza Juridikoko intranetaren garapena

**Deskribapena:**

Intranet/Internet teknologian oinarritutako informazio-sistema, bakarra eta sail artekoa, sail guztiek eskuragarria. Honetarako aukera ematen du:

Informazio juridiko interesgarria (barrukoa zein kanpokoa) atzemateko, sailetara hedatzeko eta biltegitatzeko, gerora kontsultatzeko. Hauek dira intranetaren osagai nagusiak: Txostenak eta irizpenak, jurisprudentzia, legeak, doktrina, bibliografia, iradokizunak eta informazio-eskaria dokumentazio-zentroari.

## INFORMAZIO-SISTEMAK. Web-zerbitzuen ataria

**Data:**

2011-2012

**Bezeroa:**

A&L BUFETE JURÍDICO Y TRIBUTARIO SL

**Proiektua:**

Dokumentuen kudeaketarako irtenbidea

**Deskribapena:**

A&L BUFETE JURÍDICO Y TRIBUTARIO, S.L.k, bere txostenen kudeaketa optimizatzearen, hobetu egin zituen erakundeari interesatzen zaizkion informazioa, agiriak eta mezu elektronikoak biltzeko, eskuratzeko eta kontsultatzeko sistemak. Horretarako, dokumentuak kudeatzeko konponbide bat diseinatu zen, helburu nagusi hauekin:

- Dokumentu elektronikoen kudeaketa erraza, segurua eta eraginkorra.
- Mezu elektronikoen eta haiei atxikitako fitxategien kudeaketa eraginkorra.
- Informazioaren bilaketa berreskuratze azkarra eta eraginkorra, baita mezu elektronikoetan ere.
- Lankideak erraz aurkitzea, agenda eta egutegi partekatuz baliatuz.

## INFORMAZIO-SISTEMAK. Web-zerbitzuen ataria

**Data:**

2001

**Bezeroa:**

EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA SAILA

**Proiektua:**

Informazio juridiko dokumentaleko sistema

**Deskribapena:**

Euskadiko Justizia Administrazioaren premiak aintzat harturik, sistema dokumental bat eratu zen, honetarako:

- Organo judizial guztietako (Justizia Auzitegi Gorena, auzitegi probintzialak; epaitegi zibilak, penalak, sozialak eta instrukziokoak) dokumentazio juridiko interesgarria kudeatzeko.
- Organo judizialek dokumentazio juridikoa (jurisprudentzia, legeak eta bibliografia) prestatzen eta hedatzen egiten duten lana ahalik eta gehiena gutxitzeko.
- Erabiltzaileei informazio eta/edo dokumentazio juridikoa eskuratzeko eta kontsultatzeko bidea errazteko.
- Edukiak aztertu, antolatu eta kudeatzeko.
- Dokumentazioa (epaiak) bildu, hautatu eta tratatzeko.
- Informazioa bildu, eskuratu eta berreskuratzeko.
- Thesaurus juridikoaren mantentze-lana egiteko.